

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Amale Arzelus Arrieta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1924-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa, Hondarribi kalean. Hamabi urte bete arte bizi izan zen han, gerra etorri zen arte hain justu. Hiru urterekin ikastolan hasi zen, Arantzazuko Amaren eskolan; Txurruka kalean zegoen, eta euskaraz egiten zen dena. Zortzi urte arte ibil zitekeen han. Gero, mojetara joan zen. Amak ez zekien euskaraz, baina aita oso euskaltzalea zen: Ander Arzelus "Luzear" idazle eta kazetaria zen Amalaren aita, eta neskatoa umetatik hasi zen euskararen aldeko lanetan. Aitak prestatutako hitzaldiak ematen zituen eta irratian euskarazko testuak irakurri, zortzi urterekin. Aitak berariaz berarentzat idatzitako antzezlanak ere egin zuen, "Neskamearen marmarrak". Poxpolinekin ibiltzen zen dantzan eta antzerkia egiten, Ramon Laborda apaizarekin. Baina gerrak dena aldatu zuen: ihesi joan behar izan zuten. Lehenengo Zarautzera, handik Debara, gero Lekeitiora eta Bilbora. Habana itsasontzian Frantziara joan ziren ama eta lau seme-alabak, eta ondoren Iparraldean bizi izan ziren, Azkainen. Aita, berriz, preso hartu zuten Santoñan. 1944. urtea arte ez zuten askatu. 1948an, Elbira Zipitriaren bidea jarraituz, isilpeko ikastola jarri zuen Donostiako Parte Zaharrean; bere etxean, San Jeronimo kalean. Andoni Zinkunegirekin ezkondu zen, eta bederatzi seme-alaba izan zituzten. 1968tik aurrera helduei euskara irakasten ere ibili da. Euskerazaintza elkarteko kiderik edadetuenak da; bileretara joaten jarraitzen du.

Zintak

DON-017

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-22
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze - Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Donostian euskara asko ez zen entzuten gerra aurrean ere

- **Erref:** DON-017/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Ez zen euskara asko hitz egiten, bere ume garaian. Erdararako joera. Herri txikietatik zetozenek euskara baztertu hirian. Francoren garaian okerrago. Orain ere ez du berak euskara asko entzuten Donostian.</p>

Transkripzioa

- Hitz egiten, asko hitz egiten zan euskeraz?
- Gehiyegi ez e! Orduan ere ez zan /etzan/ gehiyegi egiten. Egiten zan oain baño gehiago... baño gehiegi orduan ere... erderako joera haundiya zekan jendiak. Gero, Francon ondoren okerrau.
- Eta erderarako joera hori zergatik zan? Kanpotar asko zeolako?
- Nik eztakit. Eztakit. Egiya esan eztakit zergatik. Eztakit. Honea bizitzea etortzen zianak, herrietatik eta etortzen zianak, haiei ya erdera in behar zutela iruitzen zitzaien. Erdera apañagua zala. Jakintsuagua. Eta gero, ya Francon garayan orduan karo urte batzuetan debekatua ere egon zan. [Horrela] jendeari ere bildurra saltu zitzaion... Gauza bat eta beste... Bai, orain ez dago /eztago/ bildurrik! Baño, baño esatia "bai, asko entzuten da Donostin!". Ba, eztakit asko entzungo duten, baño nik ez det /eztet/ entzuten. Nik ez det /eztet/ asko entzuten. Pentsa, oain ikasleak eta dena eiten ai dianak euskeraz eta... Hor esaten dutenez, hortik ateatzen dianian, eztakit, eiten omen dute. Hori eztakit. Baño nik dakit ikastoletatik irten eta erderaz iten dala.

2. Ikastolan umetan; gerra garaian ihesi

- **Erref:** DON-017/005
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>12 urtera arte bizi izan zen Hondarribia kalean, gerra hasi zen arte. Alde egin zuten, aita oso abertzalea zelako. Hiru eta zortzi urte bitartean Txurruka kaleko ikastolan ikasi zuen (Arantzazuko Ama). Neska-mutilak. Andereñoak. Jolasak. Xabiertxo liburua. Gero, mojetara.</p>

Transkripzioa

- Zu Hondarribi kalia jaio, eta zenbat urtera arte egon zifan han? Ba hamabi urte arte. Guda hasi zan arte. Hamabi urtekin guda etorri zitzaigun, gure aita oso sartua zeon... hori, euskera ta ez euskera bakarrik... gure aberriko gauzetan oso sartua, eta ... berihala alde egin genun hemendik.
- Hiru urtekin hasi zifan zu...
- Hiru urtekin hasi nitzan ikastolan.
- Ikastolan, eta nun zeon ikastola? Hori, hori zeon, e... Txurruka kalia.
- Txurruka kalia?
- Txurruka kalia. Arantzazuko Ama ikastola zan.
- Eta han, e, zenbat...?
- Han zortzi urte arte.
- Zortzi urte arte?
- Bai.
- Eta zenbat zifneten gelan, gutxi gorabehera?
- Zenbat izango gifan? Txarra, ni hortarako...
- Dena neskak, ala neska-mutillak?
- Neska-mutillak.
- Neska-mutillak.
- Bai, oso aurreratuak gifan. Bai, neska-mutillak, eta zenbat izango gifan? Buf, eske ez dakit esaten. Ez dakit.
- Eta zein zan maixua edo...?
- Ba anderefioak genitun, bi anderefio. Bat nere izeba zan: Bitorina Arzelus. Eta bestia, bestia... anderefio Marixepa. Ez dakit, ez naiz goatzen abizena. Bi, bi genitun orduan.
- Eta orduan euskal kantarik eta holakoak... ikasiko zenitun.
- Bai, bai.
- Gogoratzen dezu orduko zerbait?
- Orduko abestiak edo esaten dezu?
- Bai, edo orduan ikasitako zerbait. Edo zer egiten zenuten...
- Ze egiten genun, ba bai. Ba ikasketa berihala hasi gifan hizkiyakin... Eta geo jolastea... jesus, nola... Paseo de los Fueros, leno, hori...
- Foruen enparantza.
- Bai, horixe. Hor bertan genun, eta jolastea-ta hara irteten gifan. Ta zortzi urte arte ba gauza dexente ikas... egin genitun. Goatzen naiz genitula orduan, e... Euskal Edestia... gure aita euskeratua zan hori, erderatik. Eta gero ba irakurtzeko Xabiertxo-ta, geroztik ere erabili dianak. Xabi euskalduna hori genun, eta Euskal Edestia eta gehiyo, gehiyo ere bai. Klao, liburu asko ez genitun. Askok ez, baiio... Ta zortzi urte arte ondo. Oain, handik aurea ya erderazkoa jun bihar.
- Ez zeon euskerazkoik?
- Ez zeon. Oraindik zortzi urte arte bakarrik egin... zeon, nahikoa egin

zuten... orduan.

- Eta nora jun ziñan zortzi urtekin?

- E... Aldapetan, Villa Belen.

- Villa Belen?

- Villa Belen, bai. Hori zian monja frantsesak.

- Eta zorrotzak zian monjak?

- Bueno, bai, baiño ba...

- Ondo.

- Bai, ondo.

- Ikasle ona ziñan zu.

- Bai, ikasle ona izan naiz... Hori egiya da. Ez nun istillu asko sortzen. Ondo, ondo.

3. Umetan hitzaldiak ematen eta antzerkia egiten

• **Erref:** DON-017/006

• **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:10:47

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura

Laburpena:

<p>Ander Arzelus Luzear zen bere aita. Euskerazaintzan omenaldia egin zioten. Aitarekin ibili zen bera umetatik; hitzaldiak ematera eramaten zuen. Antzerkia ere egiten zuten. Burgosen espetxeratu zuten aita, gerra sasoian. Aurretik Aita Labordarekin egiten zituzten antzezlanak, Kursaalean. Poxpolinak.</p>

Transkripzioa

- Eta zure aita euskalgintzan, ez? Oso sartuta zegon...

Bai. Gazte-gaztetatik sartua zeon...

- Kontaiguzu pixkat, nor zen zure aita.

- Ba gure aita, e... Ander Arzelus zan. Idazlia ere bazan. Idazle bezela, 'Luzear'. 'Luzear' izenpetzen zun. E... ze urtetan egin genion omenaldia? Ni Euskerazaintzakoa naiz. Euskerazaintza. Eta Euskerazaintzan ba gure aita... ehun urte beteko zitunian izango zan... jo, egunakin... Bai, bai, ehun urteko... garai hortan, bai, orduan egin genion omenaldia, Arrasate kalean Kutxak dun aretoan. Areto hortan, gero bazkaria izan genun... eta oso oso polita izan zan. Oso polita.

- Zure aita zan idazlia eta kazetaria ere bai, ez?

- Bai.

- Argiako zuzendaria.

- Baita, bai, bai.

- Eta zu, e, txikitatik hasi ziñan bere arrimuan... euskeraren alde?

-Bai, bai, bai. Ni asko ibiltzen nitzan aitakin. Gaiñea, ni orduan berritsua nitzan eta oso... ez oain bezela, abots onakin. Eta orduan aitai... beai hitz egitea ez zitzaion oso atsegin... E, bere gauzak prestatzen zitun, eta ni eamaten nindun hitzaldiak egitera. Oain pentsatzen detenean.... ba zortzi o bat urtekin hasi nitzan!

- A bai, e?

Hitz egin... aitakin, goatzen naiz behin o behin, denak gizon eta emakume haundiak... hitzaldia emateko, eta ni han, beakin. Uf, askotan esaten det: "Vaya, ze arpegiya..."

- Eta nolako hitzaldiak izaten zian: euskeran aldekuak eta?
 - Euskeran aldekoak. Aberrian aldekoak ere bai. Ni gogoratzen naiz behin... eta gero ba ikusten ninduten esaten zidaten ba... Ez dakit, ez dakit gure abestia, ereserkia o ez dakit ze... abestu zan, eta bukatzeakoan: "Eztao holako internazionalik!", esan nun. Jo, esan banun esan nun, geroztik ez dakit zenbatek esan ziaten... Oain ya... Haiyek ya gehiyenak hil dira...
 - Eta antzerkiyan ere...
 Bai, baita.
 - ... ibili ziñaten. Eta nun ibiltzen ziñaten?
 - Ba bueno antzerkiak prestatzen... zertako gure aita ya, bere atzetik ibili [...]. Madrilea jun behar izan genun. Bueno, lehenbizi Burgosen espetxean egon zan. Bost urte ta erdi o. Urtebete heriotz zigorra gaiñean zula.
 - Baiña hori gerra...
 - Gerra denboan hori. Bai, bai, gerra denboan. Klaro, gerra baiño lenuo ez zan oaindik iñor kartzelara joaten. Espetxera. Eta orduan antzerkiak, leno... ba parte hartzen genun pospoliñetan. Hemen, pospoliñak, Don Ramon Laborda zanakin; apaiza zan. Eta harrek atera zun pospoliña, Kursalen, orduko Kursaaen azpiyan egiten genun. Eta han biltzen zitun, Don Ramonek lana egin zun... biltzen zitun haur guziyak, ta han abesten, bestia egiten, bestia... hantxe, bai, han ibiltzen giñan.

4. 'Neskamearen marmarrak' antzezlan

- **Erref:** DON-017/007
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:13:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Aitak Neskamearen marmarrak bakarrik idatzi zuen berarentzat. Zortzi urterekin hasi zen. Dantza. Eibarrera, Azpeitira.</p>

Transkripzioa

-Eta euskeraz. Antzerkiya euskeraz iten zenuten.
 Bai, bai, bai.
 -Eta gogoratzen dezu orduko antzerkin bat ala?
 Bueno, ni gogoatzen naizena da, gure aitak idatzi zidana neretzat. Hori gogoatzen naiz. "Neskamearen marmarrak". Eta hori bakarriketa zan. Ta bakarriketa... bueno, polita. Etxeko andre batek eta... esaten ta...
 -Eta zu ziñan, orduan, protagonista?
 Bai.
 -Ta gazte-gaztetxo, gaiñera.
 -Bai, bai, bai. Ba orduan... guda hasi zanian hamabi urte nitun... Orduan gauza hoiyek egiten nitunian ba hamar bat urte edo. Zortzikin hasi nitzan, hori gogoatzen naiz.
 -Eta hori Batzokiyak antolatutako... hori, antzerkiya zan? Ala... bestela?
 Eliza... elizatik...
 -Ba Batzokitik eiten genitun gauzak, bai. Bai, baiña ez naiz oroitzen ziur zer zan: Batzokikoa...
 -Eta dantzak-eta ere bai?
 -Bai, dantzak-eta ere egiten genitun. Baiño nik dantza baiño gehiyo hitz ein eiten nun nik. Gehiyo hitz ein. Ba bai, eta [...] Don Ramon Labordakin, ni

mahai gaiñean hitzaldia ematen. Jo! Esaten... arpegiya... Lasai, gaiñea!
Bueno... Gogo izugarriya izaten zun, aitzak esaten zianian: «Benga, etorri,
igandean o holako tokira jungo gea». Ni pozik! Pozik.
-Eta ze tokitara juten ziñaten? Gogoratzen dezu?
Asko ez naiz gogoratzen... Gogoatzen naiz Eibarren izan giñala... Eibarren,
gero bestea... Azpeitin. Hori gogoratzen naiz. Ez dakit beste iñun...
-Ta jendia harrituta geratuko zan ba zu han ikusita!
-Bai, bai, bai. Bai, nahikoa. Nahiko harrituta. Jo, gero esaten ziaten: “Jo, hori
da...”. Ba nik... gustora egiten zun, pozik.

5. Baina gerra etorri zen

- **Erref:** DON-017/008
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:13:09. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasi zenean 12 urte zituen. Batzokiko lagunei deitu zien aitzak, familiari abisua emateko, Donostiatik joateko. Zarautz, Deba, Lekeitio... Bilbon egon ziren aitarekin; Madrilén egona zen, Jaurilaritzarekin.

6. Bilbotik Iparraldera, La Habana ontzian

- **Erref:** DON-017/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bilbon zazpi hilabete egin ostean, Iparraldera joan ziren ama eta lau anai-arrebak, La Habana itsasontzian. Azkainen bizi izan ziren. Bilboko Gran Via, sirenak eta ezkutalekuak. Janaria.

7. Azkainen eta Donibane Lohizunen

- **Erref:** DON-017/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:19:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Iparraldera joan ziren. Kanbon, Azkainen eta Donibane Lohizunen. Goserik ez. Beste familia batekin bizi ziren, Eibarko Alberditarrak; haiek ere espetxean zuten aita.

8. Bueltan, San Jeronimo kalera; irakasle

- **Erref:** DON-017/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:19. **Bukatu:** 00:21:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Bueltan, etxerik ez; alokairuan zeuden aurretik. San Jeronimo kalera joan ziren bizitzera, osaba-izebekin. Gose garaia, errazionamendua. Ama maistra zen; bera ere frantsesa irakasten hasi zen, etxean.

9. Andereño Elbira Zipitriarekin

- **Erref:** DON-017/012
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Elbira Zipitriarekin hasi zen andereño moduan, isilpeko ikastoletan. Gerra aurretik ere ezagutzen zuen. Grosen ere izan zuen ikastola. Inspektore batek esan ziona.

10. Egunean lau haur talde

- **Erref:** DON-017/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Bost hurreko taldeekin hasi zen, egunean lau talde. Bederatzi urte bitarteko haurrak. Xabiartxo liburua. Libururik gabe ere bai. Zipitriaren metodologia.</p>

11. Hasieran bederatzi urte arteko umeak, gero sei urte arte

- **Erref:** DON-017/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gurasoak donostiarrak ziren gehienak, euskaltzaleak. Hasieran hiru eta bederatzi urte bitartekoak izan zituen, gero sei urte arte bakarrik.

12. Aita bestaldera joan zen ihesi; ezin bisitan joan

- **Erref:** DON-017/016
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Espetxetik irten zenean, aita Santa Maria elizako gazteekin hasi zen lanean. Erbestera joan behar izan zuen. Zaila zen bisitan joatea. Gazte hil zen aita, handik bi urtera. Amale 1948an ezkondu zen, senarrak amnistia baliatuta. "Visado de salida". Bisitan ezin joan. Mendiz.

13. Aitaren hileta elizkizuneko arazoak

- **Erref:** DON-017/017
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:33:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Muñotarrei esker ekarri zuten aitaren gorpua. Poliziak jarritako oztopoak. Hileta elizkizuna, Santa Marian; ordua aldatu behar. Hitzordu berria azkar zabaldu zen, eta jendetza joan zen.

14. Bederatzi seme-alaba izan zituzten

- **Erref:** DON-017/018
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:33:57. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Senarra Errenteriakoa zen jaiotzez, baina Zarautzen bizitua. Azkainen ezagutu zuen. Ezkon-bidaia Iruñera, trenez. Bueltan, Bilbora. Bederatzi seme-alaba izan zituzten. Laguntzaile bat hartzen zuen eskolak emateko.</p>

15. Euskerazaintzako kide helduena

- **Erref:** DON-017/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:38:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskerazaintza noiz sortu zen, euskara batuaren aurka zegoen elkarte. Bera da elkarteko helduena. Euskalkien alde. Orain euskara batua lehen baino hobeto dagoela dio. Latxaga apaiza.

16. Abesteko zaletasuna zuen gaztetan

- **Erref:** DON-017/021
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:38:42. **Bukatu:** 00:41:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Gaztetan bazuen afizioa kanturako. Eskola Cantorumen ibili zen. Irakurtzea. Idazleak. Latxaga. Euskerazaintzako kideek hedabideetan oihartzunik ez. Aitzol. Don Ramon Laborda.</p>

17. Etxean euskaraz, baina amak ez zekien

- **Erref:** DON-017/023
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:41:57. **Bukatu:** 00:45:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Andereño ahizpa eta biak. Itziar ahizpa Orixe ikastolan ere egon zen. Ama donostiarra zen, baina ez zekien euskaraz; guraso nafarrak zituen. Ama txarra zen hizkuntzak ikasten, baina etxean euskaraz egiten zuten.

18. Umetako jolasak; poxpolinetan ikasitako kantua

- **Erref:** DON-017/028
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: sokasaltoak. Poxpolinetan ikasitako abestia kantatzen du. Diaboloa. Ezkututzen. Txingotan nola jolasten zen.

19. Eskolako uniformeak; Jaunartzea

- **Erref:** DON-017/030
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Mutilek eta neskek aparte jolasten zuten. Mutilak txarrak sokasaltoan. Uniformea nolakoa zen, moja ikastetxean ibili zenean. Pajarita. Igandero mezetara. Lehenengo ostiralak. Koruko amaren kaperan egin zuen jaunartzea, ezkondu ere bai. Euzko Etxean bazkaldu zuten, bulebarrean.

20. Seme-alabak andereño Elbirarengana

- **Erref:** DON-017/031
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:55:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Seme-alabak andereño Elbira Zipitriarengana bidali zituen denak. Ikastolak zabaldu zirenean, helduei ere irakatsi zien euskara, etxean. Izenik ez zuten galdetzen, badaezpada.

21. Automobil gutxi, bizikletan gustura

- **Erref:** DON-017/037
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:01:45. **Bukatu:** 01:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Automobil gutxi zegoen. Hondarribia kalean bizi zirenean, bakarrik joaten zen eskolara. Ez zuten kalean jolasteko ohiturarik. Bizikletan ibiltzen ziren. Tranbian Igeldora, jolas parkera. Dantza, Igeldoko herrian.

22. Dantzara hara eta hona

- **Erref:** DON-017/038
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:03:46. **Bukatu:** 01:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Erromerietara joaten zen lagun batekin, Eugenirekin, dantzara. Soltea, helduta ez. Oiartzunera.

23. Aitarekin antzezlanak prestatzen, isilpean

- **Erref:** DON-017/040
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:05:25. **Bukatu:** 01:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Aita lagun baten etxean egon zen gordeta, eta isilpean antzezlanak prestatzen zituzten berarekin. Poliziaren bisita izan zuten, eta bera larri. Bibotea utzi zuen, inork ez ezagutzeko. Argia aldizkariko zuzendaria izan zen aita gerra aurretik, Garitanonaindia apaiza hil zenean.</p>

24. Aitak kartzelan idatzitako antzezlan

- **Erref:** DON-017/042
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:07:38. **Bukatu:** 01:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Aitak antzezlanak idazten eta zuzentzen zituen. Espetxean sortu zuen bat, "Kilker abestia" lan musikatua. Taularatu gabe dago artean, baina zaila ei da egiteko.

25. Solfeoa ikastera Euzko Etxera

- **Erref:** DON-017/045
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:10:12. **Bukatu:** 01:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Batzokia. Euzko Etxera joan zen bera umetan solfeoa ikastera, Donostiako bulebarrean.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com